

Pantaleonen bidaia berria plazaratu du Patxi Zubizarretak

'Pantaleon lagunekin doa' eta 'Ipuinkaria' lanaren berrargitalpena kaleratu ditu Pamielarekin

ALBERTO BARANDIARAN

Iruñea

Hasieran, Pantaleon, Iparburuan bizi den elurrezko panpina, aspertuta bizi zen dena hotz, dena elur, eta desertura joatea erabaki zuen halako batean, kolorearen eta beroaren bila. Arriskuz eta gorabeheraz betetako bidaia hura *Pantaleon badoa* liburuan (Pamiela) kontatu zuen Patxi Zubizarretak, eta pateraz, petroliontziaz, txalupaz eta hondartzaz betetako zeharkaldiaren bidez haur asko liluratu eta Euskadi Saria irabazi zuen.

Orain, Pantaleon, bidaia bakarrik egin beharrean, lagunekin joan da, bero bila orain ere. Baina berde bila ere bai. Amazoniara.

Egileak berak, Patxi Zubizarretak, gogoratu du Pantaleoni lagunak esan ziona, aurreko bidaian berde puska harekin txoratu zenean: «Hori ez da ezer!». «Orain, arrisku handiagoak ikusiko ditu Pantaleonek, egoera larriak, eta liburuan ez dago asmo ekologiko garbirik, baina...».

Hirugarren Pantaleon ere izango da. Hiriren batean edo. Liburuaren ilustrazioak Jokin Mitxelena-renak dira.

«**DENA DA ABEZEA.**» *Ipuinkaria* liburuaren berrargitaratu du orain Zubizarretak. 5. edizioa da. Liburu berezia da egilearentzat, *Ipuinkaria* izeneko liburu batekin hasi zelako, duela hamahiru urte, haurrentzako liburuak idazten.

Baina ez ditu horrelako sailkapenak gehiegi maite. «Nik ez dut A edo Bidazten, niretzat dena da abezea», dio. Liburuaren marrazkiak Agurtzane Villate ilustragileak egin ditu.



Maiatz argitaletxearekin kaleratu du Mixel Thikoipe amikuztarrak *Hotz Bero* ipuin liburu. ISABELLE HENRY

Munduko istorioak Amikuzera ekarri ditu Mixel Thikoipek

Baxenabarreko «eskuan» idatzi du 'Hotz Bero' ipuin bilduma, bere lehendabiziko liburu

XAN AIRE

Baiona

Hemezortzi ipuin. Batzuk haurren irria bezain goxoak. Besteak bakardadea bezain latzak, heriotzak laztandurik. Amikuzeko biziaren oihartzunak, irriak ala orroak, haurtzaroko oroitzapenak, lurpean ezkatatu sekretuak. Horien kontatzen, Mixel Thikoipe. Horien lotzen, *Hotz Bero* (Maiatz). Idazle gazte bat bere lehen obra beren aitizinean. Amendüzen (Baxenafarroa) sortua da Thikoipe, eta

Domintxainen (Zuberoa) bizi da egun. Amikuzen beti beraz.

Idazle gaztea, baina biziak dakien gizona, lanak eta urteek zizelkatutik, berriki erretretan sartua. Isilka bezala idazten zituen bere istorioak Mixel Thikoipek. Eta bizi-lagunari herabeki erakusten. Eta istorio politak idazten zituela entzuten, bizilagunak erranik. Halako batean, Mattin Irigoien etxetik pasatu zen. «Kritika zorrotza bezain beharrezkoa egin zidan» oroitu da Thikoipe. Eta Luzien Etxezaharreta, Maiatz argitaletxeko arduradunari azaldu etxe xokoan idatzitakoak.

Etxezaharreta argitaratzeko prest agertu, eta hona Mixel Thikoipe idazle. «Beno... Ez naiz sobera idazlea... Plazer bat izan da idaztea, baina bigarren mailako zerbait da niretzat». Herabe jarraitzen du Thikoipek, eta herabetsun horrengatik ez du bere lehen liburu argitaratu. Orain, lehen obra eskuetan, «sentsazio bitxia» senti du hala ere.

Idatzi dituen ipuinak, han eta hemen entzunak, han eta hemen irakurriak ditu. Baina Portugalgo kondaira izanez ere, Baxenabarreko xoko batean gertatua dirudi Thikoi-peren lumak idatzirik.

«Ez naiz sobera idazlea... Plazer bat izan da idaztea, baina bigarren mailako zerbait da niretzat»

«Batuan idatzia den testu bat irakurtzeko, hiztegiak behar ditut ondoan»

MIXEL THIKOIKE
IDAZLEA

«Hori izan da helburua. Euskal Herrian, eta, batez ere, Amikuzeko eskualdean pasatuak balira bezala kontatzen ditut». Eta xedea behar den bezala eramateko, «eskuaraz» idatzi ditu hemezortzi ipuinak. «Batuan idatzia den testu bat irakurtzeko, nik hiztegiak behar ditut ondoan. Ongi dakidan euskarari idatzi dut».

HAURRAK PROTAGONISTAK. *Hotz Bero* bildumaren ipuin gehienetan haurrak dira protagonistak. «Haurrek hitz egiteko molde berezi hura daukate, denek ezagutzen duguna». Elkarrizketa arin eta alai batzuk josi ditu horrela Thikoipek, eta, helduen jakitatearekin borrokaraz, umorez beterik agertzen dira erranaldiak.

Umoreak lagundurik, ahal bezainbat tontakeria egiten ahal dituzte ipuinetako haurrek. Baina tarteka, berotasunaren erdian, iluntasunak bereganatzen du bilduma. Hotzikara bat, ipuin baten denboran. «Ipuin hotzak gertakariak baldintzatu dituzte. Nik bizi izan dut bat, mitiko bakarti bat ezagutzen nuen, gaizki bukatu zuena, eta horretaz inspiraturik idatzi dut ipuin bat».

Solasalditik gutunera, idazteko modu ezberdinek josia dute *Hotz Bero*. «Gero, istorio laburrak gusatzatzen zaizkit niri, eta besteek ere gustukoak dituztela pentsatuz idatzi ditut ipuin hauek. Domintxaineko xokotik, Durangora (Bizkaia) joan da datorren larunbatean Thikoipe. Idazle gazte bat bere lehen obra besapean. Idazle gazte eta herabe bat. «Ipar Euskal Herriatik andana bat goaz. Beste jendeen gibelean gordeko naiz, bai».

Donostiako bazterrez eta ohiturez liburu atera dute

ERREDAKZIOA

Donostia

Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek *101 bazter Donostiako. Ezagutzen duzu Donostia?* liburu kaleratu dute Alberdania argitaletxearekin. Egileen helburua izan da baserrien izena eta oroimena gordetzea. Horretarako, urteetan donostiarraren ohiturak eta sines-

menak nolakoak izan diren ikertu dute liburu idatzi aurretik.

Liburuaren egileek hainbat donostiarraren testigantzak bildu dituzte. Pertsona horiekin hitz egin ostean, dagoeneko desagertuta dauden ohiturak eta sinesmenak berreskuratzeko aukera izan dute, baita baserriarekin eta baserritarrekin lotutako bizipen ugari ere.

